

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure proiektua Arabako txakurtegi guztietara zuzenduta dago, guk lortzen ditugun produktu guztiak haiei eskaintzen dizkiegulako; beraz, haiek dira gure bezeroak. Araban soilik gure proiektua aurrera eramaten dugunez, Araban dauden 2 txakurtegiekin erlazionatzen gara. Horiek APA SOS VITORIA eta Centro de Protección Animal dira. Hori dela eta, gure merkatu mota merkatu nitxoak dela esan dezakegu. Gure proiektua bezero zehatzei zuzenduta dago, haien neurrietara moldatzen garelako, hau da, animalien ongizateaz arduratzen diren txakurtegiei zuzenduta gaude.

Horretaz aparte, txakurtegi hauei buruz hitz egin baino lehen, txakurtegiei buruzko ezaugarri orokorrak aipatuko ditugu. Horiek bolondres edo langileei esker funtzionatzen dute, horiek txakurren ongizatea bermatzen saiatzen direnak direlako. txakurtegiek ondorengo funtzioak betetzen dituzte:

Batetik, txakur guztiak identifikatuta egon behar dira eta lau hilabete bete eta gero, rabia ekiditeko txertoa jaso behar dute; bestetik, derrigorrez aurkitzen dituzten txakur guztiak hartu behar dituzte eta haietaz arduratu behar dira. Gainera, denbora luze bat pasa eta gero, zoritxarrez, adoptatu ez dituzten txakurrak sakrifikatu egiten dituzte, gero gelditzen diren lekuak beste txakur berri batzuekin betetzeko. Bukatzeko, zerbitzu zehatz batzuk eskaintzen dituzte, hala nola txakurren ongizatea noizbehinka aztertu, gaixotasun bat detektatzen bada, al baitari batekin kontaktatu eta animalia bakoitzaren datuak gordeta edukitzea.

Gure bi bezeroak ondorengoak dira:

APA SOS VITORIA: Gasteizko Gasteiz kalean aurkitzen den elkarte bat da zein txakurren ongizatea bermatzen duten arren, haiei etxe egoki bat bilatzen saiatzen dira. Elkarte honek Centro de Protección Animal-ekin batera lan egiten du, lehen aipatu dugun moduan, txakurren ongizatea bermatu ahal izateko. Gainera, txakurrez aparte, beste animalia batzuen kargu daude, hala nola katuak edo untxiak eta haiekin kontaktuan jartzeko eta haiei buruz informazio gehiago lortzeko, apasosvitoria@gmail.com emaillean, interneteko haien web orrialdean, telefono mugikorrean 945161755 , edo sare sozial guztietan sar daiteke. Instagram, [@apasosvitoria](#), Twitter, [@apasosvg](#) edo Facebook, [@vitoriaapasos](#)

CENTRO DE PROTECCIÓN ANIMAL: Gometxa-armentia ondoan dagoen elkarte da eta haren helburua, galduta, abandonatuta edo zaurituta dauden txakurrak arduratzea da. Lehen aipatu dugun bezala, APA SOS VITORIA elkartearekin batera lan egiten du. Bestetik, haien oinarrizko

funtzioak, ardura erlazio bat pertsonen eta maskoten artean sustatzea , animalietaz arduratzea hauek aurkitu bezain laster, ahalik eta leku egoki gehien aurkitzea animaliek biziraupen ona izateko eta espedienteak irekitzea txakurren protekzioa eta ongizatea betetzen ez duten pertsonen. APA SOS VITORIA elkartearen bezala, beste animalia batzuk adopta daitezke: katuak eta arrainak, besteak beste. Haien buruz gehiago jakiteko, haien web orria, cpa@vitoria-gasteiz.org eta telefono mugikorra 945161755 kontsultatu daitezke.

Bezera hauek ez dute gure zerbitzuarengatik ezer ordainduko. Izan ere, herritarren laguntzari esker lortutako ondasunak dohain eskeintzen dizkiegu. Elkartasun proiektu bat da gurea, animalien babesaren alde egiten duena.



S.O.S VITORIA
ASOCIACIÓN PROTECTORA DE ANIMALES
ANIMALIEN BABESERAKO ELKARTEA

WWW.APASOSVITORIA.ORG

